



SAHARAREN ERREALITERA HURBILDUZ

Aste Santuan Inmakulada ikastetxeko ikasle talde bat izan zen saharar errefuxiatuen kanpalekuetan 4-5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-05-02

VIIURTEA 1.691.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Guillermo Olmok egindako harrespilaren inaugurazioa. Behean, behiak mendira igo ziren unea. INAKI GURRUTXAGA

JAI GIROAK LAGUNDUTA, IGO DA GANADUA ARALARKO LARREETARA

ABALTZISKETA Aralarko larreen irekiera egin zuten atzo; dantzariak, artisauak, harri-jasotzaileak... eta jende ugari izan zen jai berezian 3

Festa giroa nagusi herriko jaien hastapeneko egunetan

OREXA Eguraldiak lagundu ez badu ere, jaiak ez du etenik; bihar amaituko dira 7



Atzoko pailazoan saioko une bat. A. IMAZ



Usabal kiroldegia ordenagailuz beterik dago egunotan. R. CALVO

400 parte-hartzaile bildu ditu Gipuzkoa Encounter jaiak

TOLOSA Bihar 18:00ak arte izango da zabalik Usabal kiroldegian, informatika zaleen bilgunea 2

EMETERIO SORAZU
IBARRAKO ERRETOREA

«Hemendik 150 kultura desberdin igaro dira»

IBARRA Apaizak 1978an egin zuen tesia berrargitaratu du 6



R. CALVO

**TOLOSALDEKO EUSKAL
ESKOLA PUBLIKOA**
BATXILERGOI (IRAKASIAIEN
ESKANTZA OROA)

ORXE
Oroa
Bigeren
Herriko
Instituzioa

BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

943 65 13 67
E-mail: 012983a@prochitza.net www.ariaa.net

Aurreematrikula: Batxilergoak, Inauteriazko 496. 8/9



Beste emakume baten erailketa

TOLOSA ■ Tolosaldeko Bilgune Feministak orain gutxi eraildako Iturengo (Nafarroa) emakumearen heriotza salatzen elkarretaratzea egin zuen ostegun iluntzean San Frantzisko pasealekuan. Emakume honek

«indarkeria sexista salatu ondoren mehatxupear» bizi behar izan zuen eta horren ondorioz hil zutela salatu zuten. Horiek horrela, «emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartzeko» deia ere egin zuten. R. CALVO

Txupinazoarekin emango diote hasiera Gaztetxeko urteurrenari

Anoeta ■ Gaur eguerdian hasiko dituzte Gaztetxearen 10. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldiak.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko dituzte Anoetako Gaztetxearen 10. urteurrena dela eta antolatutako ekitaldiak. 12:00etan izango da txupinazioa eta honekin batera presoen argazkiak ere jarriko dituzte Gaztetxeko horman. 14:00etan, aldi, pintxo eta patata tortila lehiaketa izango

dute eta ondoren, 16:30ean, Mus Txapelketa egingo dute.

19:00etarako poteoa antolatu dute txarangaz lagundurik eta afaria 21:00etan izango da. Kontzertuak ere antolatu dituzte gaurko, 23:00etan hasiko dira eta Hesian eta Susa taldeak ariko dira.

Urtemuga ospatzeko ekitaldiak maiatzaren 30ean amaituko dira eta tartean ikus-entzunezkoak, afariak, tailerrak, jokoak eta mendi martxa izango dira, besteren artean. Hurrengo hitzordua, dena den, hilaren 6ean izango da: 16:00etan Osintzulotik Gaztetxerako erreka garbituko dute auzolanean.

400 ordenagailu sutan daude jada Usabalen

Tolosa ■ Jende asko gerturatu da kiroldegira Gipuzkoa Encounterren parte hartzeko; asko bezperatik zeuden zain.

tan». Askok nahiago izaten dute gauean aritu eta ondoren «goiza lotan ematen dute». Lo egiteko kanpin-dendak jartzeko kiroldegiko areto bat utzi diete, baina jende asko dagoenez batzuk aldagelatan ere egin behar izango dute lo.

Kiroldegira ordenagailuak eman dituztenekin batera, hala ere, sarreran bertan jarri dituzten jokoetan aritzera gerturatutako gazte asko ikusi ahal izan zen atzokoan Usabalen: Virtual Tennis, Guitar Hero, Wii Sports...

REBEKA CALVO

Antolatzaileek aurtengo Gipuzkoa Encounterren edizioa atzo 10:00etan hasiko zela esan bazuten ere, asko bezperatik zeuden sartzeko zain, eta batek baino gehiagok kanpin-dendetan egin zuten lo.

Guztira 400 dira euren ordenagailua Tolosako Usabal kiroldegira eraman dutenak eta gehienak «kontu desberdinak deskargatzera etorri ohi dira: jokoak, filmak, musika...», esan du antolatzaileetarikoa batek. «Gehienak hemen ingurukoak dira; gipuzkoarrak asko eta baita bizkaitarrak ere, Espainiatik ere etorri dira batzuk, hala ere, ez pentsa», gaineratu du. Parte-hartzaileen kopurua, hala ere, mugatua da, 400 ordenagailuren zako tokia besterik ez dago, eta ondorioz «batzuk kanpoan geratu dira».

Parte-hartzaileak bihar 18:00ak arte dute aukera 1.000 megatako abiadurari probetxua ateratzeko eta seguru egingo dutela, izan ere, gehienak ordenagailuen aurrean emango dute egun osoa, nahiz eta «jende askok ere hartzen du parte antolatutako tailer eta ekitaldietan».



Askok izan ziren sarreran jarritako jokoetan aritzera gerturatutakoak. R. CALVO



R. CALVO

«Gure arteko elkartasuna gustatzen zait»

MIRIAM SANCHEZ | Bilbotarra

REBEKA CALVO

Miriam Sanchez bilbotarra da. Bere senarrarengatik du teknologia berrienganako eta ordenagailuenganako zaletasuna.

Lehen aldia al da Gipuzkoa Encounterren hartzen duzula parte?

Lehen aldia da Tolosara etortzen naizena, baina BECeko Euskal Encounterren ere izan nintzen. Hasieran senarra laguntzeko hartzen nuen parte, baina orain niri ere asko gustatzen zait.

Zer egin ohi duzu?

Kontu desberdinak deskargatzen ditut, batez ere, eta nire senarra aldi-jokoetan aritzen da.

Zer da gehien gustatzen zaizuna? Gure artean sortzen den elkartasuna gustatzen zait. Ekitaldi desberdinak ere egoten dira eta asko ikasten da.



R. CALVO

«Lagunek friki samarrak garelako uste dute»

LAURA SANCHEZ | Bilbotarra

REBEKA CALVO

Laura Sanchez Miriamen ahizpa da, batera joan ohi dira horrelakoez eta batez ere «afizioa bera dugunon topaleku» delako hartzen du parte.

Zergatik hartzen duzu parte horrelako ekitaldietan?

Nire afizio bera duen jendearen topaleku direlako. Ahizparekin, lagunarekin... etorri ohi naiz eta oso gustura egoten gara. Batez ere, deskargak abiadura handian egin ahal direlako etortzen naiz.

Noiztik zaude hemen?

Asteazkenean etorri ginen, ahal den denboragehien aprobetxatzeko, gaua kanpin-dendan eman dugu. Hiru egunak emango ditugu ordenagailuaren aurrean, lagunak friki samarrak garelako uste dute, baina hau da gustatzen zaiguna.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Emakume euskalduna eskaintzen da adineko pertsona zaintzeko. 665 720 426.





Behiak izan ziren Larraizko langa igarotzen aurrenekoak Aralarko goi larreetara bidean. ARGAZKIAK: IÑAKI GURRUTXAGA



Dantzariak kolorea eta festa giroa eman zioten egunari.



'Harrespila' eskulturaren bueltan elkartu ziren Enirio-Aralar Mankomunitatearen ordezkariak.



Artisauen lanak ikusmina piztu ohi du bisitarien artean.



Eguerdi partean jende asko ibili zen Zamaoko atsedenekuan, irudian ikus daitekeen bezala.



Mieltxo Saralegi Amezetako Antzi harria berdintzen, atzo.

Aralar, larre berri, abaro zahar

Aralarko larreen irekiera » Ganadua mendira igo eta Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600 urteak ospatu dituzte Larrunarriren magalean.

IÑAKI GURRUTXAGA

Giro goibel samarrarekin esnatu zen eguna atzo Larraitzen. Euritakoa etxean ez uzteko eguna zen. Tarteka langarra, tarteka ez, baina jendea ez zen kokildu, eta eguerdi partearako jendetza zebilen Zamaoko atsedenekuan. Dozena bat

urte badira maiatzaren lehenean Aralarko larreak irekitzeko festa antolatzen duela Enirio-Aralar Mankomunitateak, baina aurten goa berezia izan da. 600 urte bete ditu erakunde horrek, eta urteurrena ospatzeko mankomunitatea osatzen duten 15 herrietako alka-

teak eta Nafarroako Aralarren ordezkari bat elkartu ziren Guillermo Olmok egindako *Harrespilak* eskulturaren aurrean. Markel Olano Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak eta Jose Migel Santamaria Ordiziako alkate eta mankomunitatearen presidentek hartu zuten hitza ekitaldian, udal ordezkariak bere herriari zegokion harriaren parean jarrita zeudela. «Batasuna eta elkarlana» aldarrikatu zuten. Mikel Mendizabal bertolari itzasondoarrak egindako bertso batek

laburbiltzen du Aralarren, harrespilaren eta seigarren mendeurrenaren funtsa: «*Hamasei herri mugatar, seiehun urte, mila malkar/harri bakoitza besteei begira, onesiz alkar/larre berri, abaro zahar, ibilaldien deiadar/herriak herri denon ondasun, izan bedi Aralar*».

Saralegi Antzi harriarekin

Aurten 18.000 ardik, 650 behorrek eta 700 behik larratuko dute Aralarren. Atzo ireki zuten langa, eta ohi bezala behiak izan ziren igotzen le-

henak. Jende ugari ikusi zuen behien pasadizoan. Artisauak, talogileak, dantzariak eta Juan Mari Beltran musikaria aritu ziren egunari festa kutsua ematen. Ikusmina piztu zuen azken ekitaldia Mieltxo Saralegiren erakustaldia izan zen. Hiru jasoaldi eman behar zizkion Antzi harriari, eta erraz bete zuen jarritako lana. Antzi 140 kiloko harri irregularra da, altxatzeko traketsa. Bazkaritarako tartea hartu eta gero, erromeriarekin bukatu zen festa arratsaldean.



Eskerren Inmakulada ikastetxe taldea Ravounin, kanpotik iristen den materiala gordetzen duten gunean. Eskutsean, geroaren eta minen bikimen zentroan, haurrekin jolasen...

SAHARARA GERTURATZEN

Elkartasuna Tolosako Inmakulada ikastetxeko ikasle talde bat izan da igaro berri den Aste Santuan saharar errefuxiatuen kanpalekuetan.

INGO TERRADILLOS
Geroz eta gehiago dira urteetik urtera saharar errefuxiatuen kanpalekuetako egoera bertatik bertara ezagutu nahi izaten dutenak, eta hori urtean zehar egiten diren bidaietan eta bisitaldietan argi ikus daiteke. Lagun kodarik, familiak edota ikastetxeetako neska-mutillak agerik hartzen da parte sahararrei laguntzeko ekimenetan.

Abenduaren eta Aste Santuan antolatatu ohi dituzte Fronte Polisarioak bidaiak Euskal Herritik Aljeriako basamortuan kokaturiko errefuxiatuen kanpalekuetara. Igaroblerri den Aste Santuan, esaterako, hiru hegazkin bete ziren euskaldunekin. Familia bisitatzea, proiektuaren bat aurera eramatea edota estreinaldiak, bertako egoera latza ezagutzera; asmo desberdinek in egiten zuten bidaiak, baita helburuazkoen baitan, denberraz berri izan daiteke, hau da, saharar herritarreko elkartasuna adierazteaz.

Bertako erreialitate ezagutzera
Azken bidaiaren kasuan, eskualdeko hainbat herritarrek egin zuten topo, eta tartean zen Tolosako Inmakulada ikastetxe talde bat. Basamortu gogor hartako erreialitate ezagutzera eta hain hainbat ekimen gauzatzera zuten helburu.

Tolosako Sahararekin elkarteko ekimenen zentroan eman zuten hitzaldi baten ondorioz, piztu zitzaizkien ikasle hauei errefuxiatuen kanpalekuetara joateko gogoak. Hala, elkartetxerain jirari ziren herriemanean euren asmoen berri emateko, eta horrela antolatatu zuten bidaiak.

Eli Ezaguirre elkarteko kidea eta Aitza Tolosan bizi den sahararra izan dute bidaiaren kanpalekuetako egonaldian. Bertako familietan izan dira bizi izan, beraz, hango bizimoduak gortetik ezagutu ahal izan dute. Horretaz gain, Ravounin konderria eta minen ondorioz zauritutako zentroan haurrentzako gela bat piztatu dute, hango haurrekin izan dira jolasen eta txokoletan eta optikoki eskaintza. Tolosako Sahararekin elkarteko emandako materiala entregatu dute Ausserdeko urritasun fisiko eta psikikoak dutenen zentroan eta Ausserden bertan dagoen fixazio eskolan sukaldari bat entregatu dute.

«Zur errepikatuko dugula»
Esperientzia «oso aberasgarria» izan dela esatean bat etorri dira guztiak. «Hunkituta» basamortuak erakusten duen gordintsaurrekin, baita era berean, bertako errefuxiatuak hura errepikatuko «gogotsa» azaldu dira.

Zur, beraz, neska talde honek egindako bidaiak ez dela Aste Santuan amaituko. Hasi baino ez dela egin esan daiteke, horixe baita, normalean, behin berriz ezagututa gertatzen dena. Bidai horri ekiteko herriak gehiago animatzea behar da, ordea, munduak alimota eta bizkara eman dion herri honek, elkartasunik gabe, nekez aklantuko baitzaizke bizi duten egoera.

Tichlan balioanitzeko zentroa egiteko proiektua

Ibarra Udalak akordioa sinatu du Senidetuta dagoen herrian proiektua gauzatzeko, aurrekontuaren %1a erabiliko dute.

Aste Santuan Ibarako Udaleko ordezkari bat ere izan zen saharar errefuxiatuen kanpalekuetan. Izan ere, Ibarra 1998az geroztik Saharako Tichlan herriarekin dago senidetuta, eta hori dela eta, bertan proiektu bat gauzatzeko da helburu Udalak. Hain zuzen ere, «proiektu hori aurera eramateko akordioa sinatze» izan da bidaiaren horren helburua.

Balioanitzeko zentro bat erakitzeko adostu zuten bidaiak. «Zentro bertatik lurralde honetan antzeman ditugun giarte-beharritan erantuzko emango die eta kalitateko areto eskaintza eta kultur ekintzarako arazo ezinbesteko izango diren proiektuak hain zuzen ere, berriro erantuzko emango die esan daiteke, azaldu dute Udalak.

antolatutako bidaiak instituzionalen parte hartu zutenen. «Egonaldi honek saharar errefuxiatuen kanpalekuetan bizi duten erreialitate sozialaren diagnostika egiteko balio izan zigan eta baita gabezia nagusiak aztertuko, ondoren erantzun baten emateko behar diren», azaldu du Romeok.

Beharraz osatzen eta kultura arloan
Tichlan, gainerako herrietan bezala, Ibarera sozialaiko beharrik Ruzuz zintzen, baina bat, osasun eta kultura arloan. Abiapuntu horretatik hasita, «senidetutako herriaren ekintza-plana bat diseinatuzko lanak hasi genituen, horretarako zonaldeko arduradun politikoekin elengabeko harremanetan dugarazko.

Lan horren emaitza izan da hirugarren aldiko pertsonari arreta eskaintza dien eta kultur ekintzarako arazo ezinbesteko izango diren proiektuak hain zuzen ere, berriro erantuzko emango die esan daiteke, azaldu dute Udalak.



Ibarako Udaleko ordezkariak Tichlan herriko ordezkariekin, Aste Santuan egindako bidaiaren...

herrian izan zen beste bi zinegotzietan batera Aste Santuan. «Bertako ordezkariekin izan ginien, eta proposamenak aurkeztu genien. Erantzuna baietara izan zen eta ondorio bezala, akordioa bat sinatu genuen Tichlan alkatetza den Mohamed Lagafaren artean proiektua sustatzeko».

«Proposamen horiek udalarekiko talde politiko guztien onopena da, gainera, eta Tokiko Gobernu Batzarrean onartuko dute laster».

Berain balioanitzeko zentroa definituta, Ibarako alkatetza Tichlan

guntza humanitariari esker berrak dituela kontuan izaniko, azaldu du Ibarako alkatetza.

Biztanen %54,12 urteko behar horiek osatzen dute, eta %24,15 urteko behar horiek osatzen dute, eta %20,73 urteko behar horiek osatzen dute. «Populazioaren urrakortasuna lortuagotik egiten da azkenaldian janari eta osasun-lanekin zentratuak pakearen kopurua behar ere egina duela kontuan hartuz».

Sahararren egungo egoeraren jatorria ezagutzeko

Gizartea Fronte Polisarioaren sorreraren eta borroka armataruen hasieraren urteurrean hainbat ekitaldi izango dira.



Tolosako Sahararekin elkarteko kideak, Maiztoz Borrokan egitarauaren aurkezpenaren...

Pasa den urtean egin zuten bezala, Fronte Polisarioaren sorreraren eta borroka armataruen hasieraren urteurreanekin bat eginez, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Tolosako Sahararekin elkarteko kideak. Horien artean, Maiztoz Borrokan izenburupean «herriarrik saharar herritarren egungo egoeraren jatorria ezagutu eta sentibilizatu» izango da.

EGITARAUA

- **Maiatzak 9, larunbata.** Aretxabaletan, Mendebaldeko Sahararen Aldako Lasterketa Herrikoa, Aretxabaletako herriko plazan, 18:30etan hasita.
- **Maiatzak 10, igandea.** Fronte Polisarioaren sorreraren 36. urteurrena. Bazkaria izango da Tolosako sahararrek, Tolosako Erreialdean, 14:00etan.
- **Maiatzak 12, asteartea.** Bidio emandako hitzaldia. Mendebaldeko Sahararen emurkots natura-ralen espelotzioa. Ibarako Kultur Etxean, 19:30etan. Hitzaria: Circo

WISR Wiko (Saharar Herriarekiko Nazioarteko Elkartasun Sarea) kidea.

- **Maiatzak 13, asteazkena.** Hitzaldia: Mendebaldeko Sahararen egoera eta irtenbide politikoa. Tolosako Kultur Etxean, 19:30etan. Hitzaria: Txarite Rakondo GAIN taldeko kidea.
- **Maiatzak 15, ostirala.** Bertso-afaria, Ibarako Sendi Ekintzan, 20:30etan.
- **Maiatzak 16, larunbata.** Mendebaldeko Sahararen Autodeterminazioa eta Independentzia lelopean manifestazioa Bilbon, 12:30etan.
- **Maiatzak 19, asteartea.** Sahararen iragan kulturalaren ikertaketa zientifikoa burutzeko hitzaldia. Tolosako Kultur Etxean, 19:30etan. Hitzaria: Saenz de Buruaga EHUko irakaslearekin.
- **Maiatzak 20, asteazkena.** Borroka armataruen hasieraren 36. urteurrena. Elkarretarataza Meritxobu Sarrakitz eta autodeterminazioa eta independentzia. Mendebaldeko Sahararen Autodeterminazioa eta Independentzia lelopean, Tolosako Plaza Zaharrean, 20:00etan.

taldea Bilbon. Mendebaldeko Sahararen Autodeterminazioa eta Independentzia lelopean manifestazio izango da, eta bertara joatera ere animatu nahi dituzte herriarrik elkarteko kideak.

Bertako egoeraz jabetzeko
Egitariaren hainbat hitzaldia eta ibur-entzuleko antolatuko dituzte. Batetik, maiatzaren 12an, Mendebaldeko Sahararen erreturko Nazioarteko Elkartasun Sarearen eskainia. Sare honek aztertuko eta kanpotatik egiten diren Saharako lurralde okupatuaren ineres inarrikeriaren bitartez egiten duten errefuxiatu, eta berriro inguraturiko dala salatzaren.

Hurrengo egunean, maiatzaren 13an, Mendebaldeko Sahararen egoeraz eta irtenbide politikoz arituko da GAIN elkarteko Txente Rakondo. Eta maiatzaren 19an, bertan, Sahararen iragan kulturalaren ikertaketa zientifikoa burutzeko hitzaldia izango da Andoni Saenz de Buruaga EHUko irakaslearekin.

Bazkaria eta bertso-afaria
Hitzaldietan, Tolosako sahararrek bizirik iraun duela dute, eta bertso-afaria izango da. Azken ekitaldiak, borroka armataruen hasieraren urteurrean egindako dute elkarretarataza izango da.

SARIDUNAK

① **2 laguntzako otordua**
Iriarte Jatetxean
Jose Mari Galkoetxea, 34
Berrobi • Tel.: 943-683 078

• Aitzol Udai Euskaltegia

② **antzerkirako 2 sarrera**
Ate joka antzezlan
Maiatzak 9 • Larunbata
20:30an • Tolosako Leidorren

• Mila Otamendi (Tolosa)

③ **zinerako 2 bonu**
Tolosako Leidorren matzetan eskainiko den edozein filmerako
• Izaskun Sukia (Tolosa)
• Eider Amundarain (Alegia)

④ **arabar errioxako 2 ardo kaxa**
Ezkerro edariak banatzaileak eskaintako ardo botilekin
• Kontxi Amundarain (Añoeta)
• Agustín Amiano (Aitzol)

EZKERRO EDARIAK S.L.

Herrikoak
TXOKA HITZA

Sardunaren harpidetan txartela aurkeztu beharra dago ziurtagarri duan. Eskaintza bertatik bestera ezin da izan. Aholkularitza eta aholkularitza argi izango dira.

E Elkarrizketa

EMETERIO SORAZU ▸ Ibarako erretorea

Ibarra ▸ Apaizak 1978an egin zuen «euskal ohituren bilketa» eta ohitura horien zergatia argitzen duen tesia; eskaera ikusita, hala ere, berrargitaratzeko erabakia hartu du.

REBEKA CALVO

Antropologia y religion en el pueblo vasco bezala bataillatu zuen Emeterio Sorazu Ibarako erretoreak ikasle zela eginiko tesia. Lan mardula da eta bertan euskal ohitura, errito eta mitoak biltzen ditu eta baita euren zergatia ere. Bilketa lana egiteko Gipuzkoako baserri askotan ibili zen gaztaroan Sorazu inkestak egiten eta maisu paregabea izan zuen horretarako, gainera, Joxe Migel Barandiaran.

Urte asko pasa dira tesia aurkeztu zenuenetik...

Horrela da bai, 1978. urteko ekainaren lein aurkeztu nuen eta notari altueneratarikoa jarri zidaten. Kutzako zuzendaria laguna nuen eta tesia uzteko esan zidan. Dn4 neurriko ia 900 orri ziren eta etxean ikusi zituen. Hortik bi egunetara berriz ere joateko esan zidan; tarte horretan Donostiako zuzendaritzara eraman zuen lana eta bertan argitaratzeko prest agertu ziren. Urte eta erdira edo kaleratu genuen.

Ateratako ale guztiak ziztu bizian agortu ziren, gainera.

100 aletik gora erosi nituen nik banatu ahal izateko, baina bai, jende askok eskatu dit.

Nola otu zitzaizun Euskal Herriko antropologiaren eta erlijioaren inguruko tesia egitea?

Salamankan Psikologiako Eskola Goreneko lizentziatura egiten ari nintzen eta hango irakasle batek esan zidan Euskal Herriaren inguruko tesia egiteko, orduan arte mundu mailako autoreekin aritzen ginen eta niri ez zitzaizkan honetan hastea ere bururatu.

Baina egin, egin zenuen...

Lehenik eta behin lan xume bat egin nuen, baina berotu egin ninduten eta gaia lantzen hasi nintzen. Egindako lehenengo gauza erlijiotasuna orokorki hartuta eskema bat bilatu eta haren arabera gaia tolestatzea izan zen; bilduma ederra egiteko aholkatu zidaten eta horrekin ohitura horiek Euskal Herrian zergatik uztaizten diren aztertu nuen.

Ohitura asko galdu egin dira, ordea.

Ohitura bilketa horretan oso denboraldi desberdinak daude, batzuk euren originaltasuna galdu dute. 150 kultura desberdin pasatu dira hemendik; arabiarak, musulmanak, erromatarak, feniziarak, indoeuroparrak, belgikarrak... Modu askotako kulturak egon dira hemen eta erbesteko kultura horiek hiru jarrera izan ohi dituzte: beraiena nagusitu eta hemengo desagerraraztea, hemengoa be-



R. CALVO

«150 kultura desberdin pasa dira hemendik»

raienarekin bateratzea eta beraien eredutan hemengoa eredu unibertsalagoan jartzea. Hirugarrena oso ona da, eredu horrek ate gehiago irekitzen baitizkigu eta horrela gure nortasunak ate gehiago izango ditu eta, honekin, era berean, kulturaren nortasuna ageritua izango dugu.

Joxe Migel Barandiaran izan zenuen tesia zuzentzen, lana finakatzeko ere laguntza paregabea eskaniko zizun...

Oso maitea nuen, mutil koskorra bezala hartu ninduen, umil-umil. Berak tesia egiteko inkesta onartu ziten eta berak esaten zituen zer aldatu behar nuen, zer orraztu... Beste bi eskutatik ere pasa zen liburua, hala ere: Juan Martín Velasco eta Horario Santiago Otero.

Nola egin zenuen lan? Zein metodologia erabili zenuen?

Joxe Migel Barandiaranek ontzat eman zidan inkesta bat prestatu nuen, ikerketa lan bat. Gipuzkoan 37 herrietara eraman nuen, lehen-tasunaren urrats gehien jasotzen zituzten guneetara, hain zuzen; Oiartzun, Astigarraga, Ataun oso osorik, Amezketeta, Bedaio, Berastegi, Aretxabaleta, Eskoriatza... Guztira 400 bat inkesta ziren, etxe asko izan ziren, baina herri horietako apaiz asko ezagutzen nituen eta lagundu zidaten. Nik herriko 8 edo 9 baserri behar nituen, hiru be-laualdit (aiton-amonak, gurasoak eta 10 urteko gorako seme-alabak)

ziztuztenak eta apaizek lortu zizkidaten. Bost orrialde banatzen nituen baserrietan, 67 bat galdera motz zituztenak. Oso informazio ikusgarria jaso nuen. Inkesta haie-tako emaitzetako batzuk bakarrak jaso nituen, hala ere, liburuan, gairontzekoak oraindik ere fitxatan ditut, denborarik ez dudalako hori guztia txukuntzeko.

Bitxikeria ugarirekin egingo zenuen topo. Kontatuko al diguzu baten bat?

Aian gertatutakoa kontatuko ditzut. Goiz batean joan nintzen hara hiru egun lehenago utzitako inkesta jasotzera. Bertako baserri batera joan nintzen, baina ez nuen inor topatu hasieran. Ukuiluko atea irekita zegoela ikusi nuen ondoren eta hara joan nintzen, baina ez zen inor ageri. Baina orduan atera zen etxeokoa; ezkerreko eskuan egur ikaztua zuten, eskubian pos-

«Lehenik erlijiotasunaren eskema bat bilatu eta gaia haren arabera tolestu nuen»

pola eta Tolosan egiten den kandela horia ere bazuen. Ni apaiza nintzen, eta berak bazekien, hortaz, erakunde baten kriterioa izan ahal nuela, eta samur samur galde-tu nion ea zer egiten zuen horrekin. Oilategitik zetorrela esan zituen, bi dozana arraultz hartu zitue-

la. Ondoren, goiko belazetik, eguzkiak gehien jotzen zuen eta ihintz puntan ere eguzkiaren printza dantzan agertzen zuen zelaietik, senarrak aurreko ilberrian moztutako belarra ere hartu zuela esan zidan. Belar hori lehotu eta gero otarre batean sehaska moduan jarri zuten. Ondoren, arraultzak hartu zituen hirunaka, puntaz gora, eta saskian jartzen joan zen. Bukatzerakoan egur ikatzarekin gurutze forman ikutu zituen parean zituen arraultzak, baina eguzkiaren biran, eta gero kandela piztu zuten, izan ere etxean erleak zituztela esan zidan eta erleak zirela euren sentipenak misterioari ondoan adierazten zizkietenak. Esan bezala kandela eta ikatzarekin egin bezala tantak bota zizkion. Gero oilarra hartu zuen, gainera jarri eta ziur zegoen hortik 19 egunetara 24 arraultzetatik 24 txita sortuko zirela erritu hori egin eta gero.

Eta nondik dator bada ohitura hori?

Joxe Migel Barandiaranek etxeokoa kontatutakoa esan nion eta hark ohitura hori bazegoela bazekiela esan zidan, baina ez zuela topatu. Eta nik, berriz, gazte gazte topatzea lortu nuen! Berak esan zidan elementu ezberdinez betetako ohitura zela: grezitarren mitoa, euskal hierofania, egiptoarren urratsak aldatutako udarako ekinzioarekin osatutako ohitura... 9 edo 10 kultura desberdin agertzen

ziren pasadizo sume eta apal batean. Harrigarria.

Lan mardula, baina emankorra, beraz.

Bai, eta lizentziaturarako baino, tesirako ematen zuena. Joxe Migel Barandiaranek animatu zidan tesia egitera.

Nola banatu zenuen liburua?

Ohitura zaharrenen jatorria joan nahi nuen lehenik eta behin, eta esperientzia hori sarreran bildu nuen. Ondoren, inkesta egiteko erabilitako metodologia eta helbu-

«Mitoak barne sentiberatasunetik datoz eta komunitate batean ospatzen dira»

ruak bildu nituen, prozesu guztia. Hirugarrenean munduko kultura desberdinek erlijiotasuna nola tolestu duten kontatzen dut eta horretarako Joxe Migel Barandiaranek dituen hainbat pauso erabili nituen: *Ni ez naiz nere baitan, beste norbaiten baitan naiz*, aita eta ama, alegia; eta ideia horri jarraiki ikusten dugu gu dohain asko ditugula, nagusienak lurra, eguzkia, airea eta ura direlarik.

Euskal kulturaren euskaldunek izan duten sentiberatasunaren inguruko kapitulurik ere badago, ezta?

Kapitulua miresgarria da. Gauza guztiak dute zergati bat eta personalizatuta ospatzeko muin bat. Arrazoiarekin ulertzen ez dena eta hitzaren beharrik ere ez duena; ibilaldi azkarrez noa, pasiatzen... dena da sentiberatasuna. Gu arazoitasunak nagusitasuna duen garaibatean gaude eta sentiberatasuna albo batean utzi dugu.

Hierofan inguruko lana ere bildu zenuen.

Gure hierofan hitzak edo sentiberatasunak pertsona hanpatuak garaela uzten du agerian, misterioaren gune garaia, egiten duguna, eguzkia bezala, barnetasunean, lurpean eta airean, mendez mende, gastatu ezinezkoak garaia esan nahi du. Gorputza tresna bat besterik ez da, alegia. Hierofan hitzak komunitatea sortzen badu, ohitura eta erritu ere sortzen du. Hierofan hitzak erritu asko sortu ditu Euskal Herrian, urteko egun guztiak dute; San Jordi liburuaren eguna, adibidez.

Baina errituez aparte, mitoen inguruan ere hitz egiten duzu...

Ohitura komunitarioak baldezkokoak eta zorientasun iraunkorra adierazten dutenak ahoz aho komunikatzen baditugu elkartzean ohitura horietako onenak, gehien irauten dutenak, geroaren susmoa, jatorriaren egitasuna edo momentu guztien batasuna adierazten badute, mitoak direla esan daiteke. Mitoak barne sentiberatasunarekin batera datoz, komunitate batean ospatzen direnak. Ederrenak mitotzat hartzen direnak izaten dira.

Festa giro polita izan da festen lehenengo egunetan

Orexa » Herenegun hasi eta bihar arte iraungo dute festek; gaur, goitibehereak, afaria, dantzaldia eta kalejira izango dira.

ASIER IMAZ

Orexako Festak herenegun hasi baldin baziren bihar amaituko dira. Oilarraren jeitsieraren ondoren kantaldia etorri zen jaietako lehen egunean, atzo berriz pailazoak egon ziren: Patxin eta Potxin. Bi artista hauek Egiptora egindako bidaian ikusia irakatsi zien Orexara gerturatu ziren haur, guraso eta gazteei.

Auzoen arteko apustua eta sardina jatea ere egin zuten atzokoan,

» EGITARAUA

Hilak 2, gaur

- **17:30.** II. Goitibehera txapelketa.
- **21:00.** Herri afaria.
- **00:00.** Dantzaldia Gabezin taldearekin, eta ondoren, DJ Bull. Ondoren, kalejira.

Hilak 3, bihar

- **12:00.** Diana herriko txistulariekin. Ondoren, hamaiketako.
- **17:00.** Lizartza eta Orexako haurren pilota partidak.
- **19:00.** Sagardo probaketa.
- **20:00.** Bertsolariak. Ondoren, oilarraren igoera.

eta eguna behar bezala amaitzeko erromeria izan zuten Astiazaran anaiekin eta Leirerekin.



Gaztetxo nahiz guraso ugari gerturatu ziren pailazoan saiora. A. IMAZ

L Laburrak

Kultur Astea gaur hasiko da 12:00etan

IRURA » Kultur Astearen ekitaldi gehienak hilaren 8tik 17ra bitarte ospatuko dituzten arren, Irurako Kultur Astea gaur jarriko dute martxan. Hain zuzen ere, 12:00etan Gazte Asanbladako gazteen olinpiadetako finala jokatuko dute. Ondoren, bazkaria egingo dute eta egunarekin behar bezala amaitzeko, 18:00etan, triki-poteoari ekingo diote. Irurako Kultur Astearen Hurrengo ekitaldia hilaren 8an izango da; egun horretarako Mus Txapelketa antolatu dute.

Hizkuntza Eskubideen Eguna joateko deia

VILLABONA » Aurtengoan ere, azken bost urteetan bezala, Euskal Herriaren Euskaraz erakundeak Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatu du, bihar eguerdian hasita, Ondarroan, *Euskaraz biziz, Euskal Herri eskalduna eraiki!* lelopean. Villabonako Euskal Herriaren Euskarazek herritar guztiak gonbidatu nahi ditu bertan parte hartzera.



Txekor-jatearen inguruko lore eta eskulanak

BALIARRAIN » Txekor-jatearen inguruan hainbat ekimen antolatu ziren atzo Baliarraingo pilotalekuan. Herriko Jai Bartzordeak sustatuta, sukaldariak herenegun hasi zen 170 lagunentzako txekorra prestatzen. Atzo goizean berriz, baz-

karia baino lehen, frontoiaren inguruak lorez eta herritarrek egindako eskulanez apaindu zituzten. Horien artean Lurdes Zubeldia aurkitzen zen, baliarraindarrak lau hiloben jaunartzeko argazkiekin liburu itsurako oroigarri polita egin zuen

eskulan tailerretan. Loreen eta eskulanen ondoren bazkaria etorri zen. 170 lagunek txekor-jatea ospatu zuten eta bertan bildutako diru guztia herriko gimnasioaren berrikuntzak egiteko erabiliko dute. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 032. ibarraldia@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldia: 687 410 118. leitzaldia@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalalc: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Frantziako La Mouette musika bandaren kalejira 11:30ean Alde Zaharrea zehar eta ondoren 12:00etan kontzertua Plaza Berrian, Isidro Larrañaga akordeoi orkestrarekin batera.

Deialdiak

■ **Irura.** Kultur Astearen barruan Gazte Asanbladako kideek olinpiadak antolatu dituzte eta finala gaur jokatu dute. Ondoren bazkaria, eta arratsaldean triki poteoa.
■ **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter III informatika bilkura Usabalen.
■ **Tolosa.** Laskorain ikastolaren aurkezpen saioa eta bisita. Datoren ikasturteari begira, batxil-

goan matrikulatzeko informazioa jaso nahi dutenentzat: astelehenean 18:00etan Usabalen izango da.

Zinema

■ **Tolosa.** *Una pareja de tres* filma Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.
■ **Tolosa.** *Monstruos contra alienigenas* filma, Leidorren, 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Langileen Egunean zuzeneko musika

TOLOSA ■ Sanblasiko Gazte Asanbladak Maiatza Gorria izenarekin hainbat ekitaldi antolatu ditu hiru egunetan zehar. Asteazkenean mahai-ingurua egin zuten krisiaren inguruan eragile desberdinen parte-hartzearekin. Atzokoan, festa giroa izan zen nagusi Otsabi elkartean. Izan ere, Langileen Egunerako kontzertuak antolatu zituzten elkartean. Peachy Joke eskualdeko musika taldea aritu zen giroaren eta baita gonbidatutako beste talde bat ere. Atzokoa eta gero, gaur ere izango da ekitaldirik Otsabi elkartean. Hain zuzen ere, 18:30ean, *Gelditzea badago* bideo-foruma egingo dute, eta Italiako AHTren aurkako borroka izango dute hizpide. i.r.



Nerbioi Ibaian Gora DVDa




Maiatzak 9, larunbata berriarekin zure kioskoan



bbk =

aukerak ezazu. bizi euskaraz berria

Kilometroak 09



Eguna: Maiatzaren 16an
Ordua: 16:30ean eta 19:30ean
Non: Donostiako Gaska kiroldegian (Anoetako EuskoTreneko geltokiaren atzean)
Sarrerak salgai: **SERVIKUTXA, TELEKUTXA eta KUTXANETEN 7€**tan (egun berean, GASKA KIROLDEGIAN)

hirekin MUNDURA
donostia Zurriola ikastola

